


DUNAGIRI

Iparaldeko aurpegia

Jon Beloki



ERRUSIAR-amerikar taldearen ofizial gazteari diru sorta tentagarria eskaini genion baimen madarikatuaren truke bainan alferrik izan zen, eskupekoaren sistema ez zuen gustokoa tipo hark eta Changabango kanpamentu nagusitik bota gintuen. Gizona zorrotzegia zen legez kanpoko tratuetarako eta poliziarekin istiluetan sartu aurretik, ziztu bizian hanka egitea beste erremediorik ez genuen izan. Burumakur eta noraezean utzi gintuen horrek. Changabango ametsa zapuztu zitzaigun. Min egiten zuen arantza luze bat sartu izan balitzaigu bezalaxe sentitzen ginen. Mendira ezkutaketan eta bahimenik gabe joatea guk uste baino konplikatuagoa egiten ari zitzaigun alde batetik, bertakoentzat geroz eta ezagunagoak egiten ari ginelako eta beraz, kontrolatuak geundela zomatzen genuelako eta bestetik, hainbeste trastorekin trekking bat egitera gindoazela esatea ez zitzaigulako oso zentzuzkoa iruditzen. Inguruko mendi ezagun eta garaienak garestiegiak ziren eta gainontzeko mendien informaziorik, harrigarria bazitzaigun ere, ez omen zuten. Gure itxaropenak kasik hondoa jo zuenean, Mikelek ekarritako liburu zahar batean iparraldea estreintzeke zuen Dunagiri mendia aipatzen zen eta zein itxurakoa zen jakin gabe -argazkirik ez zelako agertzen liburuan- zirt-zart, trasto guztiak bizkarrean hartu, matxete zaharra eskuan eta hamabost zamalariren laguntzarekin, basoan barrena kanpamentu nagusirako bidean jarri ginen. Lau mila metrotara eta erreka koxkor baten aldamenean altza genuen kanpamentu nagusia. Tokia paregabea zen eta bakar-bakarrik geunden. Changabangoagaitik arantza ateratzerik izan ez bagenuen ere mina apur bat baretu zitzaigun azkenean, eskerrak.

Kanpamentu nagusia montatu ondoren

Eta behin zorioneko kanpamentua muntatuta, aklimatatzeari ekin genion. Horretarako, 5800 m.-tako bi mendi egin genituen; 50º-tako inklinazioa zuen pala erraz bainan arriskutsu samar batetatik igo genuen bata; erdipurdiko zailtasuneko ertz zirraragarri batetatik bestea. Lehenengoa igotzea azterketa fisikoa gertatu zitzaigun, hogeiki kilotako motxilarekin 1300 m-tako desnibela gainditu behar izan genuelako eta gozatzea baino sufritzea gehiago izan zen. Ez zitzaigun horrelakorik gertatu ordea bigarrenengan; hemen granitozko blokeez osaturiko ertzak, txapela kentzeko moduko igoera eskaini zigun. Igoera interesgarria izan zen batez ere, dozena bat luzetako ertzak bi lagunentzako tokia besterik ez zuen tontorreraino eraman gintuelako. Guenbe Peak izenarekin bataiatu genuen sei mila metro eskaseko mendi koxkor hau.

Aklimatazio prozesua amaitutzat emanda, Mikelen prismatik txikiekin Dunagiriren iparra behatzeari eman genion; behetik goraino zehatz-mehatz aztertu eta gero, Xabik eta biok igoerarako bide bera aukeratu genuen. Urrundik ikusita ez zirudien zailtasun haundiegirik zuenik bainan hormaren erdi eta goikaldean zeuden serak mehatxariok deseroso sentiarazten gintuzten. Aurrez botatako elurteen ondoko elurjauzi beldurgarri horiek amaitu baziren ere, izotz eta harrizko bombardaketak etengabeak ziren eta...ez zigun batere graziarik egiten hauek sahiesten ibili beharrak. Motibazio handiak eta sasoiean egoteak ordea gorantza egitera tiratzen gintuen, beti ere arriskuaren esanahia ahaztu gabe eta igoera prestatzen hasi ginen.




Lau bat egunetako irteera kalkulatu genuen. Pirinioetan edo eta Alpeetan egin ohi diren igoeren estilokoa, azkarra. Igo, lehentxeago aipaturiko seraken azpian ziren malda elurtu horietan gora igoko ginen eta jaitsi, Japonese talde batek irekitako ipar-mendebaldeko ertzetik. Horretarako arin-arin joko genuen gorantza, ahalik eta zamarik txikienarekin. Fermin eta Mikelek berriz, beranduxeago ekingo ziotela erabaki zuten lasaiago ibili nahi zutelako; hartean ez zeuden guztiz aklimatatuak eta gainera, guk lerrokatu genuen bidearen ezkerretara beste bide berri bat zabaldu nahi zuten, teknikoki zailasun handiagokoa, horma handiak igotzeko estilo astun eta astiroagoan igotzera behartzen zituen beste bide interesgarri bat. Elkarri zorte ona opa izan ondoren, bi bikoteak, estilo eta bide desberdinetatik, Dunagiriren ipar aurpegitik igotzeari ekin genion.

▲
Goiko aldean.
Xabi Guembe
6700 m.tara, bigarren eguna
Goian eskumatara.
Fermin Izco, Xabi Guembe
eta Jon Beloki
Eskumatara.
Mikel Zabaltza.
Atzean Dunagiriren ipar
aurpegia. 7066 m
▼

Hiru egun behar izan genituen Xabi eta biok ipar aurpegi hau gaunditzeko, hiru egun eta bi gau. Pentsatua bezala, zailtasunak ez zigun buruhauste handiegirik eman; bai ordea gaua pasatzeko toki egokiak aurkitzeak eta egiteak, su txikiak edo eta hautsi zitzaizkidan piolo madarikatuak. Behetik prismatikoekin kontrolatu genituen eta gure ustez egozkiak ziren "vivac"-etara berta-

ratu ginenean adibidez, babes ezagatik arriskutsuegiak zirela oharatu ginen, izotz eta harri koskorren bonbardaketak bete-betean jotzen gintuelako. Atsedean leku erosoagoren baten bila ibiltzen ginen, nahiz eta horrek gure nekea handiagotu. Gainera bigarren egunean Xabik, zeraman janariaren murrizketa egin zuen; zama handiegia zeramala eta, goitik behera bota zuen janari poltsaren zatirik handiena. Niri berriz eta sineztezina badirudi ere, pioloetariko bat gurutzetik hautsi zitzaizkidan 70-75^o-tako izotz plaka batean eta hori gutxi balitz, bigarren "vivac"-ean lotarako sakua motxilatik ateratzen ari nintzelarik, janari poltsa bat eta ordezko eskularruak erori zitzaizkidan. Madarikazioak bereganatu gintuen fijo! Pastelari ginda hurrengo egunean jarri zitzaion; ura egiteko su txikiak ez zuen funtzionatzen. Zulotxoa trabaturik izango zuela eta, ile batekin garbitzen saiatuko nintzela esan nion Xabiri. Eta honen



marmarrei kasurik egin gabe esan, egin eta asmatu. Guztiz konpondu ez banuen ere, potoka erdi ur edan ahal izan genuen egun hartan. Premiarik handienez gertatzen omen dira aterabiderik harrigarrienak. Su txikiak funtzionatu zuen azken aldia izan zen hura.

Hirugarrenean egunean Dunagiriko gailurra

Hirugarren egunaren eguerdian zapaldu genuen Dunagiriko gailurra. Egindako lanarengatik gogoan dut oso nekaturik iritsi nintzela gora. Xabik gailurreko egunerarte, bidea zabaltzeko apenas ordezkatzan zidan beherako nazkagarriak ahuldu egin zuelako gaixoa eta luzaroan bidea zabaltzen ibiltzeak, lur jota utzi ninduen, birrinduta. Jaitsi beharra zegoen lehen bait lehen urik eta janaririk gabe geundelako eta nik eskuak izoztuak nituelako. Behin eta berriz saiatzan ginen su txikiarena konpontzen bainan alferrik. Elurra jatearekin konformatu behar, arraioa!

Jaitsiera Japonesen ertzetik egin genuen nola edo hala; gailurra egin eta hurrengo egunean, eguerdi aldera lainoa sartu zenean, betaurrekoen belarrietako bat hautsita nuelako okertu egiten zitzaizkidan hauek eta deseroso nindoalako kendu egin nituen. Ez nekien zazpi mila metrotara, elurra apenas zuen ertz batean, lainopean eta ordu bete eskasean begiak horrenbeste erre zitezkeenik bainan...erre egin zitzaizkidan eta jaitsiera osoa metro batetara ere ikusten ez nuela egin behar izan nuen. Ahulezia gero eta handiagoa zen, nigan batez ere. Rapelak arriskugarriak egiten zitzaizkidan eskuko behatzen izozteengaitik; elurretan gindoazenean, Xabiren haztarnak ez nituen batere garbi ikusten eta errema-

tatzeko, estroputz egin eta ertzaren albo batetara erori nintzen. Benetan gogorra egin zitzaigun jaitsiera; nik kolpeak nonahi, itsuturik eta behatzak izoztuta eta Xabik kristoren beherakoa eta gainera sekulako deshidratazioarekin biok. Japoniarrek utzitako soka eta iltze zaharrek gidatzen ziguten berantza. Xabiri eskerrak azken hauen bilguneak aurkitu eta rapelak muntatzen zituelako jaitsi ginen astiro-astiro sei mila metrotaraino. Gure zorionerako, itzultea kostatzen ari zitzaigula eta kezkatuak zeuden Mikel eta Fermi-ni, Japoniarren ertzarantz hurbiltzea otu zitzaien; hatzeman zigutenean gugana hurbildu eta beheko kanpamentu harterainokoa egiten lagundu ziguten.

Berriz ere beheko kanpamentuan eta niri izoztutako esku madarikatuok sendatzen zizkidaten bitartean, sei egun eta bost gau iraun zuen abentura honetan pasatutako gozamen eta sufrimentuak izan genituen hizpide. Gehiegi gozatu nahi izateagaitik sufritu genuen hainbeste eta gehiegi sufritzea tokatu zitzaigulako ez genuen hainbeste gozatu. Egin genituen eta hasi berriaren mailakoak izan ziren akatsek zorionez, gure esperientzia eza txikiagotu zuten; bainan zoritxarrez nire eskuko behatzak ere bai. Norberak egindako akatsetatik ikasten omen da hobekien. Ikusiko dugu. Hurrengoan jakingo da zenbateraino den egia hori.

Xabi eta biok Zaragozara bidean geundela, Mikel eta Fermin beraien bidetik igotzeko azken ahaleginetan zebiltzan. Lau egun jarraian izotzean gogor eskalatu ondoren, gau hotz batek Fermin ondoezik utzi zuen eta berantza egin behar izan zuten. □

▲
Goiko aldean.
Jon Beloki, harkaitz eta
elurretan "Vivac" egiteko leku
erosoren baten bila
Erdian.
Xabi Guembe "Guembe peak"
mendiaren gailurrean. Atzean
Dunagiri mendia
Behan.
Mikel Zabaltza izotzean
eskalatzen
▼

